

Gure enpresa sortzeko garaian zenbait funtsezko baliabide beharko ditugu; batik bat gure formakuntzak aurrera eramateko eta egoki esleitzeko.

Baliabide fisikoei dagokionez, areto edo formakuntzak eskaintzeko gune itxi bat beharko genuke. Areto edota gela honetan aulkiak eta mahaiak beharko genituzke, edota mahai aulkidunak.

Bestetik, proiektorea beharko genuke bertan aurkezpen, datu, bideo eta irudi ezberdinak ikusteko. Ordenagailua guk eramango genuke eta bezero edota elkarteko kide bakoitza arduratuko da apunteak hartzeko materiala eramateaz.

Baliabide intelektualei dagokionez, aditu ezberdinekin harremanetan jardungo dugu, informazio egokia eskeintzeko, eta gu hezitzaileak izanik guk dakigunetik ere informazioa eskainiko dugu.

	Formakuntzak
Amaiur Ugalde	Hezitzailea
Naiara Romero	Hezitzailea
Irati Erbiti	Hezitzailea
Olatz San Emeterio	Hezitzailea eta begiralea

Elkartearen barruan, kide bakoitzak rol ezberdin bat izango du. Hau da, Amaiurrek hezitzailea izan arren, hitzaldiak emango ditu aditu baten laguntzarekin. Naiarak hezitzaile rola hartuko du eta oinarrizko funtzioak beteko ditu (publizitatea, beste elkarteekin harremanetan jarri...). Iratik hezitzailea izan arren, hitzaldiak emango ditu bere ezagupen eta esperientzietan oinarrituta. Azkenik, Olatzek talde terapiak aurrera eramango ditu. Horrez gain, hitzaldiak daudenean haurrekin tailerrak burutuko ditu. Gu laurok izango gara enpresaren jabe eta elkarte, harremanak, kontuak eta formakuntzak aurrera eramango ditugu.

Finantza baliabidetan zentratuz, badugu kontu korrontea jada sortua eta bertan hilabetero diru kopuru bat sartzen egon gara urtean zehar, hala enpresa sortzeko baliabideak izateko. Horrez aparte, kamisetak sortuko ditugu elkarte iragartzeko. Dirua ateratzeaz gain, hitzaldietan hizlari bakoitzak kamiseta bana jantzita eramango du ikustarazteko, eta gainera,

hitzaldiak amaitu ostean kamiseta erosteko aukera izango dute. Horrela izanik, sare sozialetan eta gure webgunean ere salgai egongo dira kamisetak. Kamisetak egoteaz gain, bestelakoak egongo dira. Adibidez, ur botilak, umeentzako liburuxkak, biserak, etab. Guzti hau, urtean zehar salgai egongo da gure elkarteko lokalean, eta azpimarratzeko Durangoko azokan ere egongo gara.

